

Nafar guztien mesedetan agintzeko eskatu die Otanok bere sailburuei

Alli lehendakariordeak eta beste gobernukideek atzo hartu zuten kargua

Juan Cruz Alli lehendakariordeak eta Nafarroako Gobernuko beste zazpi sailburuek atzo hartu zuten kargua. Javier Otano lehendakariak «herritar guztiak aintzat hartuz eta nafar guztien mesedetan» aritzeko eskatu zien PSN, CDN eta EAko gobernukideei. Horrez gain, IU alderdia Gobernuko partaidetzat daukala eta, horregatik, bere solaskide nagusia izango dela aipatu zuen.

A. UNANUE / IRUÑEA

Nafarroako koalizio gobernua osatuta dago atzo eguerdiaz geroztik. Sailburu berriak honako hauek dira: CDNko Juan Cruz Alli (lehendakariorde eta Ekonomia eta Haziendako sailburu), Javier del Castillo (Tokiko Administrazioa, Lurralde Antolakuntza, Etxebizitza eta Ingurugiroa), Florentino Lopez Isturiz (Herrilanak) eta Javier Etxarte (Nekazaritza Sustapena); PSN-PŠOeko Federico Tajadura (Lehendakaritza, Barne eta Lan Saila), Pedro Burillo (Hezkuntza eta Kultura) eta Fernando Puras (Osasuna eta Gizarte Ongizatea); eta, azkenik, Eusko Alkartasunako Iñaki Cabases (Industria, Merkataritza eta Turismoa).

Lehendakariordeak eta beste sailburuek Nafarroako foru erregimena, Espainiako Konstituzioa eta karguak berezko dituen betebeharrak errespetatuko dituztela hitz eman zuten karguaz jabetzeko. Cabasesek euskaraz eman zuen hitza.

Gobernu berriko zenbait kide aski ezagunak dira. Alli, esate



Nafarroako Gobernu berria kargu-hartze ekitaldiaren ostean.

OSKAR MONTERO

baterako, Otano bera baino ezagunagoa, Nafarroako lehendakaria izan baita azken lau urteotan. Del Castillo ere sailburu izan da UPNko Gobernuaren azken hilabeteetan. Sozialisten artean Tajadurak bakarrik dauka sailburu esperientzia, 1984-87 legegintzaldian Osasun Saileko arduraduna izan baitzen eta hurrengoan Lurralde Antolakuntzako, bietan Gabriel Urralbururen agindupean. Gainerako sailburuek lehendabizikoz hartu dituzte gobernu ardurak.

Otanok bezperan azaldutako ideiak errepikatu zituen gobernukide berrien aurrean. Hau da, elkarrizketa eta integrazioa bultzatzeko premia eta aldi berean politika berritu beharra. Lehendakariak esan zuenez, PSN-CDN-EA koalizio gobernua «sustengu zabal» dauka gizar-

tean, baina sustengu hori lau urte barru are zabalagoa izan dadin, herritar guztiak aintzat hartzeko eta haien mesedetan aritzeko eskatu zien bere sailburuei. Horretarako biderik egokiena, Otanoren irudiko, «elkarrizketa negoziaketa eta era guztietako akordioak bultzatzea da».

Honi lotuta, bere gobernu taldearen solaskide nagusia Izquierda Unida izango dela azpimarratu zuen, talde ezkertiarra Gobernuan ez egon arren Gobernuko partaidetzat jotzen omen dutelako. Gainera, Gobernuak datozen lau urteotan beharko duen egonkortasuna lortzeko Iuren laguntza ezinbestekoa izango dela aitortu zuen Otanok.

Aipatzekoa da sailburuen kargu-hartze ekitaldian Javier Markotegi eta Alberto Catalan besterik ez zirela egon UPNtik.

Hala ere, gonbidatu ugari izan zen ekitaldian, horien artean Carlos Garaikoetxea. EAko lehendakariak esan zuenez, alderdi abertzale bat aurreneko aldiz Nafarroako Gobernuan izatea onuragarria izango da. «Askotan aipatzen da Nafarroaren aniztasun ideologikoa eta soziala, baina abertzaleak erakundeetan ez bageaude, ez da aniztasun hori errespetatzen. Kontuan izan behar da EAK gehiengo lortu duela Nafarroako bailara askotan, esate baterako Baztanen, Bortziritan, Malerrekan, Larraunen eta Sakanan. Horrek esan nahi du abertzaleok Nafarroako zati handi bat ordezkatzeko dugula, nahiz eta toki guztietan ordezkari maila bera ez izan, eta horregatik dagokigun tokia izan behar dugula erakundeetan», azaldu zuen Garaikoetxeak.

CDNk ez du ikerketarik eragotziko

A. U. / IRUÑEA

CDNk ez du ezin ikerketa batzorderen sorrera oztopatuko. Hala adierazi zuen atzo Juan Cruz Allik, CIES enpresaren eta PSN alderdiaren arteko harremanak ikertzeko batzordea sortzearen alde dagoen galdetu ziotenean.

UPNren ustez, PSNk erabili zituen Gabriel Urralburuk artean Nafarroako Gobernuko lehendakari zenean CIES enpresari eskatu zizkion txostenak. Nafarroako egoera politikoari buruz-

ko azterketak Rotako txalet batzuen eragileak —Luis Roldan, Urralburu eta Antonio Aragonek bina txalet erosi zituzten han— ordaindu zituen gero. Hori dela eta, irailean ikerketa batzorde bat eskatuko duela iragarri du UPNk.

Alliren arabera, «CDN Foru Parlamentuan eskatzen diren ikerketa guztiak onartzearen aldekoa da eta, gainera, aurrerabiderako hitzarmenean gardentasuna eta ikerketa lanak bultzatzeko konpromezua hartu genuen. Nolanahi ere, eskaerak ja-

sotakoan ikusiko dugu zer dioten gainerako indar politikoei».

HBrentzat, berriz, dagoeneko frogatuta dago PSN «ustelkeria kasuetan» nahastuta egon dela. Talde abertzale horrek CDN, EA eta Iuren jokaera kritikatzen duen atzo Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza berriro sozialisten esku uzteagatik. HBren iritziz, EA eta CDNren jokaera «zeharo epela» izan da, IUrena «erabat inkoherentea» eta alderdi horiek Nafarroako politikagintza berritzeko hartu duten konpromezua ez du sinesgarria.



Juan Cruz Alli.

Donostian ez da aurten Salbeko desfilea egingo

DONOSTIA

Donostiako EAJko zinegotziak ados azaldu dira Odon Elorza alkateak aurtengo Salbea bertan behera uzteko egindako proposamenarekin. Agintarien desfilea kentzearen alde jadanik PSE, HB, IU eta EAJ azaldu dira, eta, beraz, litekeena da gaur Elorzak kentzeko erabakia jakinaraztea.

Donostiako EAJk ohar baten bidez bere jarrera ezagutzera eman zuen ostegunean. Alderdi horren aburuz, Salbea «ekintza erlijioso da, eta ez dago Udalari berorren jarraipenaz erabakitzea. Herri askotan egiten dira antzeko ekintza tradizionalak, eta Donostiako Salbeak herritar gehienek onartzen dute». Elorzak Salbea bertan behera uzteko egindako proposamenaren gainean, EAJk alkatearen erabakia onartuko duela adierazi du, «normalizazioa lortzen eta gure hiriarren irudi ona hobetzen laguntzen badigu». EAJk beti horrelako ekintza tradizionalen alde egon dela dio bere oharrean.

Alderdi guztien jarrerak zeintzuk diren jakin ondoren, gaur jakinaraziko du Donostiako alkateak horren gainean hartu duen erabakia. Odon Elorzak «oso positibotzat» jo du EAJk bere erabakia errespetatzeko hartu duen jarrera. Elorzaren iritziz, «HBk du bere esku Aste Nagusia normaltasunez igarotzen uztea».

EA eta PP alderdiak, berriz, ez dira ados azaldu proposamenarekin. PPko zinegotzien ustez, agintarien desfilea ez egitea «gutxiengo biolento baten mesederako herritarrek beraiena den eskubide bati uko egitera behartzea da».

Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakaria ere Salbeari buruz mintzatu zen atzo Donostian. Bera «soilik gonbidatu bat» izango dela adierazi zuen. «Salbea egiten bada ni han egongo naiz, eta bertan behera uzten bada erabakia onartuko dut», gaineratu zuen. Ardanza ustez, Salbea ez ospatzeak «demokratik biolentoen aurrean etsi egiten dugun irudia eman lezake», baina ekitaldia bertan behera uzteko arrazoiak ere badaudela onartu du, «orain inoiz baino indartsuago agertzen diren arrazoiak».